

Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatuko du gaur Markina-Xemeingoak

I.Alberdi

Markina-Xemein Markina-Xemeingo Herri Bibliotekak gaur ospatzen den Liburutegien Nazioarteko Eguneko ospakizunetan parte hartu nahi izan du eta hainbat ekintza antolatu ditu horretarako.

Hasteko, gaur libururen bat maileguan ateratzen duten guztiei opari bana ematea erabaki dute udal arduradunek. Ekintza hau ume zein nagusiekin egingo da, baina umeentzat bereziki beste gauza bat prestatu dute. Izan ere, irakurketa sustatzeko kalkamonia batzuk atera dituzte eta Herri Bibliotekan agertzen diren guztiei jarriko zaie.